

# Nola erabili eLiburutegia

o. Lehenik eta behin, **Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko Liburutegi batean bazkide izan/egin**: erabiltzaile zenbakia eta pasahitza emango dizkizugu; era berean, helbide elektroniko bat eskatuko dizugu.

## 1. Behin bakarrik egin beharrekoa:

1.1. **ADOBE ID** delakoan erregistratu beharko duzu (egile eta argitaletxeen eskubideak bermatze aldera). AdobeID(entifikatzaile)a hau da, zure helbide elektronikoa (zeina, Liburutegiko erabiltzaile gisa utzi duzun berdina izatea komeni baita), eta pasahitza gogoan hartu/gorde.

1.2. **PC/MACen bidez edo/eta irakurgailu elektronikoan** irakurri nahi izanez gero, **Adobe Digital Editions 3.0** programa instalatu beharko duzu zure ordenagailuan; hori eginda, Laguntza atalean “Baimendu ekipoa (ordenagailua)” zure AdobeID-a eta pasahitza erabiliz.

**IOS (Apple) edo ANDROID sistema duten gailuetan, hau da, tableta eta telefono mugikorretan**, berriz, **eLiburutegia aplikazioa** jeitsi beharko duzu eta, zure AdobeID-a eta pasahitzarekin, zure gailua baimendu.

## 2. Mailegu bakoitzeko egin beharrekoa:

2.1. **eLiburutegia**-ren web orrian sartu, aukeratu gustuko liburua, eta sakatu “**Nahi dut**” (libre egon ezean, erreserba egin dezakezu).

2.2. **Liburutegiko erabiltzaile zenbakia eta pasahitza** eskatuko dizkizu.

2.3. Mailegatutako liburua irakurtzeko **bi aukera** ikusiko dituzu:

2.3.1. **Online**: Internet bidez zure gailuan momentuan irakurtzeko, gordetzeko aurkerarik gabe.

2.3.2. **ePub formatuan** jeistekoa:

a. Zure **PC/MAC-ean**, Adobe Digital Editions programan ireki eta gordeko zaizu dokumentua. Programa berean mantendu behar duzu **irakurgailu elektronikoan** irakurri nahi izanez gero, hau USB kable bidez zure ordenagailura konektatuz: Adobe Digital Editions programan, gailuaren irudia azalduko zaizu eta alboan gurpiltxoia (Aukerak); Aukerak atalean sakatu “Baimendu gailua”, hau zure AdobeID kontuarekin lotu ahal izateko. Azkenik, hautatu liburua eta arrastatu gailuaren irudira.

b. **Android gailuen kasuan**, aukeratutako dokumentua eLiburutegia aplikazioan irakurri ahal izateko, Deskargak edo tankerako karpetan aurkituko duzun .acsm fitxategia (zure mailegua) zabaldu. Honela ezingo balitz, **ES File Explorer** bezalako doako fitxategi-kudeatzaile (aplikazio) bat erabili; bertan, Deskargak (edo Download) karpetan liburuaren .acsm fitxategia topatu eta zabaldu, “Beste batzuk” aukeratik, eLiburutegia-n.

**IOS gailuen (Apple) kasuan**, dokumentua zuzenean irekitzen da eLiburutegia aplikazioan.

## eMailegu arauak

- Maileguen iraupena 21 egunekoa izango da.
- Gehienez 3 liburu hartu ahal izango dira maileguan aldi berean; 2 erreserba egiteko aukera ere izango da.
- Mailegua iraungi baino 5 egun lehenago, gogorarazteko mezua bidaliko da. Liburutegiko erabiltzaile gisa utzitako helbide elektronikora iritsiko da mezua.
- Mailegatutako liburua eskuragarri egon daiteke 6 gailutan eta 6 ordenagailutan aldi berean.



Mutriku Udala

**LIBURUTEGIA. Zabil Kultur Etxea. Erdiko Kale 28**

Katalogoa: [www.liburutegiak.euskadi.net/katalogobateratua](http://www.liburutegiak.euskadi.net/katalogobateratua)

eLiburutegia: [www.euskadi.net/eliburutegia](http://www.euskadi.net/eliburutegia)

[www.mutriku.eus](http://www.mutriku.eus)  [mutrikukoliburutegia](https://www.facebook.com/mutrikukoliburutegia) /Tel 943604182 /[liburutegia@mutriku.net](mailto:liburutegia@mutriku.net)